

JUAN SOLDADU ETA SAN PEDRO-I

Kortezubiko Matias Aranazek kontatuta 1920an

Juan Soldadu gizon indartsua zen, San Pedroren lagun handia.

Jesukristok eraman zuenean San Pedro apostolu, elkarrengandik banandu egin ziren.

Gero Juan Soldadu irten egin zen lagun bila.

Aurkitu zuen Juanito ehiztaria, erbien paradan errotarri bat hankan lotuta zuela.

- Zertarako daramazu errotarria hankari lotuta? –itaundu zion Juan Soldaduk.

- Errotarria barik erbia saltoan igarotzen dut, eta aurrekoarekin harrapatzen dut datorren erbia –erantzun Juanito ehiztariak.

Juan Soldaduk esan zion:

- Prest al zaude munduan zehar ibiltzen etortzeko?

- Bai –erantzun zion Juanitok.

Bazihoazen biak, aurkitu zutenean mendia ipurdiarekin jota berdindutan. Juan Soldaduk esan zion:

- Prest al zaude munduan zehar ibiltzen etortzeko?

- Bai –erantzun zion honek.

Bazihoazen hirurak aurrera. Aurkitu zuten laugarrena, sudurzulo bakoitzean berrogeitamar arroa lana zituena.

- Zertarako dauzkazu horiek? –galdetu zion Juan Soldaduk.

- Haizea eusteko –erantzun honek-, kalterik egin ez dezadan putz eginda sudurzuloetatik.

Juan soldaduk esan zuen horixe ere lagun ona dugu geuretzako.

Esan zioten:

- Egizu proba sudurzulo batekin.

Sudurzulo bat zabaldu zuenean, bertan inguruan zeuden tantaiak lurrera bota zituen.

Juan Soldaduk ixteko agindu zien. Gero itaundu zion:

- Prest al zaude munduan zehar ibiltzen etortzeko?

- Bai –erantzun zion honek.

Bazihoazen aurrera bosgarrenaren bila. Aurkitu zuten gizon bat egurretan, tantaia, porruak baliran ateratzen, eta kargan ipintzen etxera eramateko.

Juan Soldaduk itaundu zion:

- Zenbat irabazten duzu?
- Eguneko lau mari irabazten ditut –erantzun honek.

Juan Soldaduk jarraian itaundu zion:

- Prest al zaude munduan zehar ibiltzen etortzeko?
- Bai –erantzun egur-egile indartsuak.

Bazebiltzan mundua zehar ibiltzen. Baina ez zuten aurkaririk aurkitzen denbora osoan.

Bat egarritu egin zitzaion.

Paratu zen ura edaten Bermeoko barran, hanka bat Solluben, bestea Ereñozarren eta eskua Izaroko aitzan jarrita.

Hasi zen ura edaten, eta itsasontzi bat zihoan bidaiatzen hantxe parean, eta egin ei zuen zurrutadarekin irentsi egin zuen.

Gero kolikoa hartu zuen, eta hil egin zen.

Hura hil zenean bakoitza bere lekura joan zen.

Joxe Miel Barandiaran

Obras Completas Tomo II

Eusko-Folklore

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

Bilbao, 1973

